

Herri Babesarea

Giza eskubideen defendatzaileen
babeserako euskal udal sarea



Brigadas
Internacionales
de Paz

Mundubat



EAO UDALA



DURANGO
Udala • Ayuntamiento



Errenteriako Udala



Herriakiko
Udala




Irún
Ayuntamiento

Agirigileak: Nazioarteko Bake Brigadak (PBI) eta Mundubat Fundazioa

Argitalpen hau proiektu honetan dago kokatuta: "Giza eskubideak defendatzen dituzten lurraldeak. Eragin globalak dauzkaten toki-ekintzak".
Proiektuaren finantzaketa: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Argazkiak: Carlos Henao, Francesca Volpi, Equipe Media

Diseinua eta maketazioa: porENDE estudio gráfico



Herri Babesarea

Giza eskubideen
defendatzaileen
babeserako euskal udal sarea

Antolakuntza



Mundubat

Parte hartzaileak



Eako UDALA



DURANGO
Udala - Ayuntamiento



Errenteriako Udala



Hernaniko
Udala



Herri gonbidatua



Diru-laguntza



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



NAZIOARTEKO BAKE BRIGADAK (PBI)

Nazioarteko Bake Brigadak (PBI) Nazio Batuen aurrean aitortutako gobernuz kanpoko erakunde instituzionala da, eta 35 urtetik gorako esperientzia dauka giza eskubideen defendatzaileen babesean nahiz bakerako eremuen irekieran. 1981. urteaz geroztik, giza eskubideen alde indarkeriarik gabe lan egiten duten pertsona, erakunde eta erkidego defendatzaileei lagundu die, euren lanagatik egoera arriskutsuan daudenean. Hona hemen PBIk garatutako lana: landan bertan behatzeko brigaden bidez, laguntasun fisikoa eskaintzea; babes integralerako prestakuntzen bidez, erakundeak indartzea; nazioarteko laguntza-sareak eratzea; eragin politikorako ekintzak egitea; eta sentsibilizaziorako, komunikaziorako eta gizartea eraldatzeko hezkuntzarako ekintzak sortzea, giza eskubideen defendatzaileen lana agerian jartzeko.

Informazio gehiago: www.pbi-ee.org

MUNDUBAT

Mundubat gobernuz kanpoko erakundea da, eta erkidegoekin zein herri-erakundeekin lan egiten du, eskubide zein alternatiba sozialak aldarrikatzen dituztenean eta partaidetzazko demokrazia sustatzen dutenean. Herritartasunaren ikuspegi kritikoa suspertzen du gure gizartean, eta nazioarteko sare zein aliantzetan oinarritutako lana bultzatzen du. Horretarako elkartasunaren ideia, hain zuzen ere, pertsona guztientzako eskubideen erabileran eta hedapenean oinarrituta dago, genero-berdintasuna kontuan hartuta. Azken bi hamarkadotan, Mundubatek behar besteko proposamenak garatu ditu, giza eskubideen erakunde defendatzaileei eta erakunde horiek defendatzen dituztenei laguntzeko. Defendatzaileekin egindako lanak baldintza materialak ezarri nahi ditu, hemen entzun dakien, arreta jaso dezaten eta bakean, ordaintzat hartutako justizian, berdintasunean eta giza eskubideetan oinarritutako gizartea lortzeko borrokan esperientziak partekatu ditzaten.

Informazio gehiago: www.mundubat.org

**2018an, 27 herrialdetan
gutxienez 321 defendatzaile
hil zituzten giza eskubideak
defendatzeko egiten duten
lanagatik, eta inoizko kopuru
handiena izan da***

GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA, JARDUERA ARRISKUTSUA

Giza eskubideen defendatzaileak gizarte zibileko pertsonak, erkidegoak edo erakundeak dira, eta, banan-banan edo taldean, modu unibertsalean aitortutako giza eskubideak gauzatzeko lan egiten dute. Eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta ingurumenekoak sustatzea eta babestea dute helburu.

Giza eskubideen defendatzailea familia da, eta justizia, egia zein ordaina bilatzen ditu desagertutako senideentzat. Enpresa transnazional bateko meatzaritza-proiektu erraldoiaren aurrean basoak, ibaiak eta lurraldea defendatzen dituen erkidego indigena. Lan-baldintza duinak eskatzen dituen makilako langilea. Etxe-kanporaketa geldiarazten duen auzo-elkartea. LGBTIQ+ eskubideen aldeko ekintzailea. Abortua despenalizatzeko mobilizatutako emakumeen taldea. Etorकिनen eskubideen alde lan egiten duen erakunde.

Giza eskubideen defendatzaileak babestea estatuen nazioarteko betebeharra bada ere, pertsona, erkidego eta erakunde defendatzaileak indarkeriaren eta kriminalizazioaren eredu sistemikoen helburu dira. Front Line Defenders¹ erakundearen azken txostenean adierazten denez, 2018. urtean, 27 herrialdetan gutxienez 321 lagun hil zituzten giza eskubideak defendatzeko egiten duten lanagatik, eta inoizko kopuru handiena izan da. Hilketak, ordea, ez dira ekitaldi isolatuak, aldez aurretik eraso judizialak, mehatxuak eta eraso fisikoak jasaten dituztelako, beste kriminalizazio-modu batzuen artean.

Testuinguru horren aurrean, administrazioek giza eskubideen defendatzaileen babeserako neurriak hartzeko betebeharra dutela nabarmendu beharra dago, eta, gizartean, egunez egunekoa giza eskubideen defentsa integratu beharraren inguruko kontzientzia kritikoa sustatzen lagundu behar dute.

¹ Front Line Defenders, "2018ko Azterketa Globala".

HERRI BABESAREA: GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN BABESERAKO EUSKAL UDAL SAREA

Zer da Herri Babesarea?

Herri Babesarea Nazioarteko Bake Brigadek (PBI) eta Mundubat Fundazioak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko fondoan bidez sustatutako ekimena da, eta, bertan, Euskadiko zenbait udalek parte hartzen dute, Giza Eskubideen Defendatzaileen Babeserako Euskal Udal Sarea eratzeke asmoz.

Herri Babesareak *Ciutats Defensores dels Drets Humans de Catalunya* ekimena du inspirazio-iturri, eta udal-administrazioen, euskal gizarte-erakundeen eta hegoalde globaleko giza eskubideen defendatzaileen erakundeen arteko ahaleginak koordinatzea dauka helburu, tokian tokitik giza eskubideen defendatzaileen babesa sustatzeko asmoz.

Horretarako, sarearen esparruan, sentsibilizaziorako, komunikaziorako, egituraketarako eta eragin politikorako ekintzak garatzen dira, defendatzaileen laguntzarako eta babeserako sareak sortzen eta euskal biztanleak giza eskubideen defentsaren garrantziaren inguruan kontzientziatzen laguntzeko. **Herri Babesarea Foro Ibiltariaren 1. edizioa** 2019ko azaroaren 18tik 24ra egingo da Euskadiko 7 udalerritan, eta ekimen honi emango dio hasiera.

Zergatik giza eskubideen defendatzaileen BABESERAKO UDAL SAREA?

Izan ere, giza eskubideen gaur egungo urraketa sistematikoa hain larria denez eta eskubideok **defendatzearen bizia arriskatzen dutenei babesa eman behar zaienez**, honako hauxe xede duten ekintza koordinatuak garatu behar dira:

- Pertsona guztien **elkarmenpekotasuna** aitortzea eta planetako leku batean garatzen diren ekintzek leku urrunetan eragin zuzena dutela kontuan hartzea.
- **Tokioa globalarekin** lotu beharra dagoela onartzea eta zenbait lurralde eta testuingururen arteko elkarriketak eta trukeak sustatzea.
- Eraginerako eta eraldaketarako **eremu seguruen** sorrera sustatzea, giza eskubideen defentsaren ondorioz errepresaliarik egon ez dadin; esate baterako, erasoak, mehatxuak, jazarpenak edo hilketak.

“Ez ditut aldatu ezin ditudan gauzak onartzen, onartu ezin ditudan gauzak aldatzen ari naiz.”

Ángela Davis
Ekintzaile politikoa

SAREA: “Helburu jakin baterako antolatutako elementuen multzoa”.

Ahaleginak koordinatu behar dira, eta, horretarako, sareko lanak badu babeserako, sentsibilizaziorako, komunikaziorako eta eraginerako egiten ditugun ekintzak biderkatzeko ahalmen handirik. Sareak tresna historikoa izan dira, euskarria, laguntasuna eta zainketak eskaintzeko: babesa emateko.

UDALA: “Euren interes erkideak modu autonomoan kudeatzeko asmoz lurralde jakin bateko bizilagunek osatzen duten toki-erakundea”.

Ekimen honek herritarren jarduketa-eremua eta tokiko elkartasuna berreskuratzeko orduan udalek duten gaitasuna nabarmendu eta balioetsi egiten du. Udal-lanari esker, badugu ekintzak hiri handietatik haratago deszentralizatzerik. Tokikoa globalarekin lotuta dago.

BABESTU: “Nor bait (...) kaltetik edo arriskutik (...) zaindu, haren inguruan jarrita. Aterpea eman, jagon, nor bait defendatu”.

Giza eskubideen defendatzaileen aurkako kriminalizazioa nagusi denez, laguntzeko, presio politikoa edukitzeko eta defendatzaileen erakundeen lana agerian jartzeko sareen eraketarako eskaerak gehitu dira. Eskaera guztiak babesarekin lotuta daude, gainera. Eskubidedun subjektuak gara, baina babesteko betebeharra ere badugu.


Herri Babesarearen 1. edizioko udal parte-hartzaileak

En esta primera edición de Herri Babesarea, varios municipios de Gipuzkoa, Bizkaia y Araba han aunado esfuerzos y capacidades de incidencia y sensibilización para vincularlas a su **deber de protección**. Los municipios participantes son los siguientes:

- **Amorebieta-Etxano:** www.amorebieta-etxano.eus
- **Durango:** www.durango-udala.net
- **Ea:** www.eakoudala.net
- **Errenteria:** www.errenteria.eus
- **Hernani:** www.hernani.eus
- **Irun:** www.irun.org

Udal gonbidatua:

- **Agurain:** www.agurain.eus



Foro ibiltaria: 2019ko azaroak 18-24

Herri Babesarearen ekitaldi nagusia urteko **foro ibiltaria** egitea izango da. Bertan, astebetean, udal parte-hartzaileek zenbait herrialdetako defendatzaileen erakundeetako talde baten bisitaldia jasoko dute. Epealdi horretan, sentsibilizaziorako, egituraketarako, eraginerako eta komunikaziorako jarduerak egingo dira (hitzaldiak, bilera instituzionalak, gizarte-erakundeekiko topaketak, komunikabideetako elkarrizketak...). Jarduera horien bidez, euskal biztanleek zuzen-zuzenean ezagutu ahal izango dute giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen eta erakundeen lana, eta, aldi berean, defendatzaileen babeserako sarea sendotzen lagunduko dute, haien babeserako eremuak eta tresnak sortzean.

Herri Babesarea foro ibiltariaren lehenengo edizio honetan, zenbait taldetako kideek parte hartuko dute, eta honako hauexek dira haien lan-ardatzak eta lurraldeak:

- **Guatemala:** Lurraren, lurraldearen eta ingurumenaren defentsa
- **Honduras:** LGBTIQ+ erkidegoaren eskubideak eta dibertsitate sexuala
- **Kolonia:** Bakea lurraldeetatik eratzea
- **Kolonia:** Pazifikoko erkidego afrokolonbiarren eskubide kolektiboak
- **Mexiko:** Erakunde feministek eskubideak defendatzeko duten eskubidea
- **Sahara:** Eskubideen defentsarako mugimenduaren kriminalizazioa eta jazarpena
- **Palestina:** Okupaziopeko giza eskubideen emakume defendatzaileak

Herri Babesarea ekimenean parte hartzen duen udal bakoitzean, honako ekintza hauek garatzen dira:

- **Eragina:** udal guztietako ordezkari politikoekin egindako bilerak.
- **Sentsibilizazioa:** udalerriko biztanleentzat egindako sentsibilizazio-jarduerak.
- **Egituraketa:** Euskaditik antzeko gaietan giza eskubideen defentsarako lan egiten duten gizarte-erakundeekin hitz egiteko eremuak.
- **Komunikazioa:** tokiko eta autonomia-mailako informazio-bideetako komunikazio-ekintzak.

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN BABESARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Giza eskubideak (GGEE) gizaki guztien berezko eskubideak dira, haien arraza, sexua, nazionalitatea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, gustu sexualak eta afektiboak edozein direla ere. Giza eskubideak banaezinak dira, elkarren arteko menpetasun estua dute eta honako hauexek dira, besteak beste: bizitzeko eta askatasuna edukitzeko eskubidea; esklabotza pean eta torturapean ez egoteko eskubidea; iritzi eta adierazpen askatasuna edukitzeko eskubidea; lurraldeez ingurumen osasungarrian gozatzeko eskubidea; hezkuntzarako, lanerako eta indarkeriarik gabeko bizitzarako eskubidea.

Estatuek GGEE guztiak babesteko, sustatzeko eta gauzatzeko betebeharra duten arren, planetako eskualde askotan modu larrian urratzen dituztela ikusten dugu egunero. Aldi berean, ikusi ere egiten dugu giza eskubideen defendatzaileak etengabe mehatxatu, eraso, jazarri eta, askotan, hil egiten dituztela.

Edonola ere, babesteko betebeharra ez da estatuetako gobernuen ardura bakarrik. Udal-erakundeek GGEEak sustatzeko eta babesteko betebeharra dute Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen arloan legerian bertan adierazten den bezala. Horrez gain, gizarte zibiletik hurbil daudenez eta harekin harreman estua dutenez (tokian tokikoak eta globalak bat egitean aukerak ere badituztenez), giza eskubideen defendatzaileen babesean eragin ona duten ekintzak egin beharko lituzkete.

Aukera horiek aztertu ondoren, udalok giza eskubideek maila globalean jasaten duten urraketaren larritasunari buruz hausnartu dugu, eta badakigu nolako ahalmenak dituen sare batek, udal-arloan herritarren jarduketa-eremuaren berreskurapenerako ahaleginak bateratzeko orduan. Gainera, udalen ekintza ere bada garrantzitsua defendatzaileen babesean, haien zaugarritasuna gero eta handiagoa dela kontuan hartuta. Hori dela eta, gero eta eremu seguru gehiago, zainketa gehiago, nazioarteko agerikotasun handiagoa eta gure udalerriko biztanleen sentsibilizazio handiagoa gogor behar dira.

Aurrean adierazitako guztiagatik, udal parte-hartzaileok, adierazpen instituzional honen bidez, HERRI BABESAREA ekimenarekin bat egiten dugu: Giza Eskubideen Defendatzaileen Babeserako Euskal Udal Sarea. Izan ere, udal-administrazioen, euskal gizarte-erakundeen eta hegoalde globaleko giza eskubideen defendatzaileen erakundeen arteko ahaleginak koordinatzea dauka helburu, sentsibilizatorako, komunikatorako eta eragin politikorako ekintza bateratuak egiteko eta, horrela, tokian tokitik, giza eskubideen defendatzaileen babesa sustatzeko.

ORGANIZACIONES DEFENSORAS INVITADAS

NEKAZARIEN BATASUNERAKO BATZORDEA - CUC
(GUATEMALA)

LGBT ARCOIRIS ELKARTEA
(HONDURAS)

NOMADESC
(KOLONBIA)

BUENAVENTURAKO GIZARTE-GELDIALDIA
(KOLONBIA)

OAXACA PARTZUERGOA
(MEXIKO)

GIZA ESKUBIDEEN URRAKETETAKO BIKTIMEN ELKARTE
SAHARRA - ASVDH
(MENDEBALDEKO SAHARA)

UNION OF PALESTINIAN WOMEN COMMITTEES - UPWC
(PALESTINA)



Ana Rosalía Tiul Quib de Caal

honako honexen izenean

COMITÉ DE UNIDAD CAMPESINA. – CUC (GUATEMALA)

honako honexetarako eskubideak defendatzen

Lurraren, lurraldearen eta ingurumenaren defentsa

Nekazarien Batasunerako Batzordea masen erakundea da, eta Guatemalako giza talde indigenek eta nekazariak osatzen dute. CUCek genero-berdintasuna eta aniztasun etniko, kultural zein linguistikoa kontuan hartzen dituen landa-garapen integrala abian jarri behar dela defendatzen du. Erreferentziako erakundea da lurraren berreskurapenari zein edukitzari buruzko aholkularitza juridikoan eta laguntzan. Hona hemen bere lanaren helburua: landa-inguruneko erkidegoetan genero-berdintasuna sustatzea, erakundeak indartzea, landa-inguruneko langileen lan-eskubideak lortzea, erkidegoa eta ekoizpena garatzea eta herri indigenen nortasuna zein eskubideak suspertzea.



Esdra Yaveth Sosa

honako honexen izenean

LGBT ARCOIRIS ELKARTEA (HONDURAS)

honako honexetarako eskubideak defendatzen

LGBTIQ+ erkidegoaren eskubideak eta dibertsitate sexuala

Honduraseko LGTB ARCOIRIS Elkarteak erkidego Lesbiko Gay Trans Bisexualeko (LGTB) pertsonen taldearen ekimenari esker sortu eta sendotu egin zen, honako hauexen sustapenerako ekintzak garatu nahi zituzten-eta: giza eskubideak, eragin politikoa, osasuna eta GIB/HIESaren prebentzioa. ARCOIRIS Elkarteak LGTB erkidegoari laguntzen dio arazoak eta premiak konpontzen, historiari begira bazterketa sozial, politiko, ekonomiko eta kultureleko biktimak izan direla kontuan hartuta.

Proposamen askoren artean, elkarteak ahalegin nazionalak sustatzen ditu, honako arlo hauetako politika integrala garatzeko asmoz: giza eskubideak; osasun integrala, GIB/HIESari lehentasuna emanda; sexu eta ugalketa arloko hezkuntza; zientzia eta teknologia; eta eskubide sozioekonomiko zein kulturalen erabilerarekin lotutako beste arlo batzuk. Horretarako, Honduraseko gizarteko talde zaurgarrietako batzuen jabekuntzarako eremuak eratu eta ireki egiten ditu, eta giza eskubideen, generoaren, sexualitatearen zein osasun integralaren arloko hezkuntza eskaintzen du.

Comayagüelako eta Tegucigalpako hirietan garatzen du bere jarduera.



Olga del Carmen Araujo Casanova

honako honexen izenean

NOMADESC (KOLONBIA)

honako honexen inguruan lan egiten

Bakea lurraldeetatik eratzea

Ikerketarako eta Gizarte Ekintzarako Elkartea (Nomadesc) giza eskubideen erakundea da, eta laguntasuna zein aholkularitza soziojuridikoa ematen dizkie gizarte-erakundeei, sindikatuei, auzo-erakundeei, emakumeei, indigenei, afroinordekoei eta nekazariei, giza eskubideen urraketetako biktimak direnean. Ikuspegi pedagogiko-ikertzaile eta soziojuridikotik lan egiten du, eta, era berean, eragin politikorako ekintzak ere garatzen ditu. Giza eskubideen defentsa integralerako pedagogia sortzea ere bada bere xedea.

Erakundeak nazio-mailako zein nazioarteko enpresei eta giza eskubideei buruzko zenbait azterlan egin ditu. Caucako mendebaldean, La Salvajina presa hidroelektrikoari eta bertan sortutako eragin sozioekonomikoiei zein ingurumeneko eraginei buruzko azterketak egin zituen Nomadescek. Buenaventuran (Caucako bailaran), euren erresistentzia-lanean lagundu die erkidegoei, Kolonbiako portu handienaren hedapenaren eta tokiko biztanleen artean dituen ondorioen aurrean euren lurraldean jarraitzeko aukera izan dezaten. Giza eskubideen defentsan eta bakearen eraketan egin duen lanaren ondorioz, Nomadesceko taldea eraso bateko baino gehiagotako biktima izan da urteetan.



Leyla Andrea Arroyo Muñoz

honako honexen izenean

PARO CÍVICO DE BUENAVENTURA (KOLONBIA)

honako hauexek defendatzen

Pazifikoko erkidego afrokolonbiarren eskubide kolektiboak

Buenaventurako hiriko biztanleek, euren eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak eskatzeko mekanismo moduan antolatuta, Gizarte Geldialdia egiteko erabakia hartu zuten, protestaldi baketsurako duten eskubidea kontuan hartuta. 2017ko maiatzaren 16an hasi zen, eta, bertan, udalerriko indar bizi guztiek bat egin zuten. Geldialdia erabatekoa izan zen, eta ekainaren 6ra arte iraun zuen, egun horretan gobernuak eta Gizarte Batzordeko kideek hitzarmena lortu zuten-eta.

Honako hauexek osatu zuten “Lurraldean Duintasunez eta Bakean bizitzeko Gizarte Geldialdiko” Batzordea: 110etik gora gizarte eta herri erakunde, irakasleak, langile informalak, erkidego beltzak, indigenak, auzo-ekintzarako batzak, pastoral soziala, merkataritzaren sektorea, garraioak (lurrekoak eta itsasokoak), ikasleak...

Gizarte Batzordeak portuko biztanleei dei egin zien, eta Nazio Batuei, Arartekoari, Nazioko Prokuradoretza Nagusiari, Udal Ordezkaritzari eta nazioko zein nazioarteko GKE-ei eskatu zien laguntasuna, giza eskubideen urraketak prebenitzeko eta Protestaldi Sozial zein Baketsuaren esparruan bermeak lortzeko asmoz.



Emilie Chantal de Wolf

honako honexen izenean

CONSORCIO OAXACA (MEXIKO)

honako honexen inguruan lan egiten

Erakunde feministek eskubideak defendatzeko duten eskubidea

Oaxaca Partzuergoa erakunde zibil feminista da, eta emakumeen giza eskubideen errespetua zein erabilera sustatzen ditu, baita genero-berdintasuna ere.

Erakundea 2003. urtean sortu zen, legegintzako eta politika publikoko prozesuetan eragina edukitzeko asmoz. Era berean, honako haxe ere badu xede: herritarren sareen egituraketa sustatzea; emakumeen trebakuntza zein prestakuntza bultzatzea, haien eskubideak aitortu daitezen; eta demokraziarako, justiziarako eta gizarte-inklusiorako partaidetzazko gizartea eratzeko ekarpenak egitea.

Oaxaca Partzuergoa kasuetarako laguntasunean eta genero-indarkeriaren dokumentazioan nabarmentzen da Oaxacan. Halaber, bete-betean ere parte hartzen du Oaxacako mugimendu sozialean eta nazio-mailako eremu estrategikoetan. Oaxaca Partzuergoa Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Ekimen Mesoamerikarra eta Mexikoko Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Sare Nazionala bultzatzen dituzten erakundeetako bat da. Horrez gain, Oaxacako Giza Eskubideen Emakume Defendatzaile eta Ekintzaileen Sarea ere koordinatzen du. 2016an, La Serena Atsedeen Etxea ireki zuen Oaxacan. Autozainketarako nahiz atsedenerako lekua da, eta nazio zein eskualde mailako sareetan emakume defendatzaileen babes holistikorako sustatutako strategiaren barruan dago txertatuta.



Brahim Dahane

honako honexen izenean

GIZA ESKUBIDEEN URRAKETETAKO BIKTIMEN ELKARTE SAHARRA - ASVDH (MENDEBALDEKO SAHARA)

honako honexeri buruz hitz egiten

Eskubideen defentsarako mugimenduaren kriminalizazioa eta jazarpena

ASVDH elkarteak lurralde okupatueta giza eskubideak defendatzen dituzten ekintzaile sahararren talde batek sortu zuen Aaiunen, 2005. urtean. Biktimen eta kontzientzia-presoa ohien mugimendua da, eta Marokoko agintariak jazarritako edo espetxeratutako milaka lagunen eskubideen alde lan egiten du. Segurtasun-indarren larregikeriak salatu, erregistratu, ikertu eta legezko laguntza ematen du. Eragina ere suspertzen du NBEko mekanismoen bidez eta nazioarteko zenbait erakunderekin; esate baterako, Human Rights Watch edo Nazioarteko Amnistia. ASVDH Mendebaldeko Saharako okupazio marokoa salatzen duten erakundeetako zen, eta erdi klandestinitatean lan egin behar zuen. 2015ean, ordea, 10 urteko auzi juridiko eta administratiboaren ostean, Marokok lurralde horretan legearen arabera jarduteko aitortu zuen lehenengo erakundea izan zen.



Assala Naser Abu Khdeir

honako honexen izenean

UNION OF PALESTINIAN WOMEN COMMITTEES - UPWC (PALESTINA)

honako hauxe defendatzen

Okupaziopeko giza eskubideen emakume defendatzaileak

UPWC erakundeak Palestinako emakumeen eskubideen defentsaren alde lan egiten du Israelgo okupazio militarren testuinguruan. UPWCk Gazan eta Zisjordanian dauka agerpena, eta emakume palestinarren autonomia, gizonen zein emakumeen berdintasunezko harremanak eta gizarte-maila guztien berdintasuna sustatzen ditu. Bere helburuen artean, honako hauxe bultzatzen du UPWCk: emakumeen jabetasuna maila guztietan (maila sozial, politiko, ekonomiko eta kulturean), emakumeen partaidetza erabakitzekeko prozesuetan, beste erakunde batzuekiko koordinazioa emakumeen mugimendu bateratua eratzeko eta emakumeen eskubideak bermatzen dituzten legeen sustapenerako eragin politikoa.



AGENDA:

HERRI BABESAREA FORO IBILTARIAREN

1. EDIZIOA

2019ko azaroa

17 igandea

- Mundubat, PBI eta giza eskubideen defendatzaileen arteko barne-lanketa jardunaldia

18 astelehena

- “Herri Babesarea Foro ibiltariaren I. edizioaren aurkezpena

19 asteartea

- Komunikabideekin elkarrizketak
 - Euskal Herriko gizarte zibileko antolakundeekin eta mugimendu sozialekin elkar ezagutzeko espazioa.
- DONOSTIAN

EA

Giza eskubideen defendatzaile hauek hartuko ditu:

- Ana Rosalía Tiul Quib de Caal, Comité de Unidad Campesina (CUC). (Guatemala)
- Emilie Chantal de Wolf, Consorcio Oaxaca (Mexiko)
- Leyla Andrea Arroyo Muñoz, Comité del Paro Cívico de Buenaventur (Kolonbia)

20 asteazkena

HERNANI

Recibe a las defensoras de DDHH:

- Esdra Yaveth Sosa, Asociación LGBT Arcoíris (Honduras)
- Emilie Chantal de Wolf, Consorcio Oaxaca (Mexiko)
- Assalah Abu Khdeir, Union of Palestinian Women Committees (UPWC). (Palestina)

ERRETERIA

Giza eskubideen defendatzaile hauek hartuko ditu:

- Ana Rosalía Tiul Quib de Caal, Comité de Unidad Campesina (CUC). (Guatemala)
- Leyla Andrea Arroyo Muñoz, Comité del Paro Cívico de Buenaventura. (Kolonbia)
- Asociación Saharai de Víctimas de Violaciones de Derechos Humanos (ASVDH). (Sáhara)

21 osteguna

AGURAIN

Giza eskubideen defendatzaile hauek hartuko ditu:

- Emilie Chantal de Wolf, Consorcio Oaxaca. (Mexiko)
- Assalah Abu Khdeir, Union of Palestinian Women Committees (UPWC). (Palestina)
- Asociación Saharaui de Víctimas de Violaciones de Derechos Humanos (ASVDH). (Sahara)

IRÚN

Giza eskubideen defendatzaile hauek hartuko ditu:

- Esdra Yaveth Sosa, Asociación LGBT Arcoíris (Honduras)
- Leyla Andrea Arroyo Muñoz, Comité del Paro Cívico de Buenaventura. (Kolonbia)
- Ana Rosalía Tiul Quib de Caal, Comité de Unidad Campesina (CUC). (Guatemala)

22 ostirala

DURANGO

Giza eskubideen defendatzaile hauek hartuko ditu:

- Ana Rosalía Tiul Quib de Caal, Comité de Unidad Campesina (CUC). (Guatemala)
- Leyla Andrea Arroyo Muñoz, Comité del Paro Cívico de Buenaventura. (Kolonbia)
- Asociación Saharaui de Víctimas de Violaciones de Derechos Humanos (ASVDH). (Sahara)

AMOREBIETA -ETXANO

Giza eskubideen defendatzaile hauek hartuko ditu:

- Esdra Yaveth Sosa, Asociación LGBT Arcoíris (Honduras)
- Emilie Chantal de Wolf, Consorcio Oaxaca (Mexiko)
- Assalah Abu Khdeir, Union of Palestinian Women Committees (UPWC). (Palestina)

23 larunbata

- Mundubat, PBI eta giza eskubideen defendatzaileen arteko barne-lanketa jardunaldia
- Herri Babesarea foro ibiltariaren I. edizioaren balorazio saioa